

1968 - X - 5

## LITERATURA EUSKERAREN BATASUNARI BURUZ EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA

*Arantzazuko billeren ondorean, han ziran euskaltzainak elkar-turik, argi-bide hauek eman zituzten.*

Arantzazuko batzarrea egin ondoren, Euskaltzaindiak eskerrak agertu nahi dizkie etorri diren nahiz beren iritziak bidali dituzten guztiei.

Lehenik ikusi duguna da guztion ustez gure hizkuntzaren batasuna behar beharrezkoa dugula. Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezakean gauza, eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana. Batasun hori, euskera idatziaren batasunaz mintzatu geranez gero, euskal-idazle eta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari eta laguntzaile dutelarik.

Arantzazun izan diren eta ez diren euskaltzaleak argibide bat izan dezaten, Euskaltzaindiak geroago eta astiroago argitarako dituen erabaki eta lanen aurrerapena agertu nahi du orain.

- 1) Ortografiatzat hortarako hautatu zen batzordeak adierazi dituen puntu gehienak onhartuak izan dira, ikusi dugunez.
- 2) *H*-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea.

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saiok ez direla ongi ikusiak izango.

- 3) Morfologiaren izenen erabileraz batzordeak prestatu duen aintzin lana puntu nagusietan oinharri bezala hartuaz jokatuko du, aditzarekikoa beste aldi baterako utziaz.
- 4) Aztertu dira, orobat, batzordeak euskal-hitz zahar eta berrienformaz gertatu dituen lanak, gero ere hori bide beretsutik hobeki lantzeko asmoz.

Atsegin hartu du Euskaltzaindiak elkar-hizketa honetan agertu den giroaz, gendetasunaz eta elkar lanerako gogoaz eta uste du, gero ere, guztion laguntzarekin, bere eginkuzuna beteko duela. Hortan saiatuko dela.

EUSKALTZAINDIA